

ALKATE DEKRETUA

2025eko apirilaren 29ean, ARABA EUSKARAZ elkarteak 2025-1435 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean.

Aipatutako eskaera bidez, ARABA EUSKARAZ taldeak 2025 urtean Araban euskara sustatzeko dirulaguntza eskatu dio Ibarra Udalari.

Ibarra Udala bat dator Araba euskaraz ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra Udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Araba Euskaraz.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Araba Euskaraz delako Araban euskararen eta euskal kulturaren hedapena bilatzen duen jai bakarra.

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.05 2025 dirupartida.

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Diruz laguntzea Araba Euskaraz egitasmoa, bera delako Araban euskara eta euskal kultura hedatzen duen jai bakarra. .

BIGARRENA. Aipatu dirulaguntza 800 €koa izango da eta Araba Euskaraz egitasmoa antolatzen duen Araban Euskaraz Elkarteari (G01400324) ordainduko zaio ES63 2095 3188 00 9119125991 kontu korrontean

HIRUGARRENA. Aipatu kopurua 2025eko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.05 2025 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA. Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA. Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da

SEIGARRENA. Egindako diru-ekarpena justifikatzeko, Araba Euskaraz ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2026ko urtarrilaren 31a baino lehen:

- a. Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.
- b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena



Esp.zk.: 2025WDIZ0005
Gaia: Araba Euskaraz 2025 dirulaguntza

ZAZPIGARRENA. Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA. Ebazpen honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARRENA. Ebazpen honen berri udalbatzari ematea egiten duen hurrengo lehen osoko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

Nekane Lazkano Prieto

Alkateordea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025WDIZ0005-Dekretua_OR/Decreto_GE (ASOC ARABA EUSKARAZ)